

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 (Imp. R. Paredes) / Astea 27. 1989

30. Zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1989. Apirila

LANGABEZIA ETA LAN BIDEAK HONDARRIBIAN

Langabezia da, edozeinen ustez, gure gizartea sofritzen ari den zigorrik handiena, beste gaitz askok ere hortxe bait dute beren sustraia. Hondarribia, noski, ez da horren atzaparretatik libratzen.

Hau dela eta apirilaren 20an pleno bat izan zen udaletxean, HBk eskatuta, arazo honetaz hitz egiteko eta Udalak bere alde-rik zer eskaini dezakeen ikusteko. Hain zuzen ere, Udal demokratikoak edo, sortu zireneko, lehen hamarkada betetzen zen egun berean. Gai egokia udalei pultsoa hartzeko.

Plenoan entzun ziren planteamendu nagusiak ez ziren inorentzat berriak gertatu, bai HBk (azaroan "Herri Berri" izeneko txostenean) eta bai EEK (hil honetan bertan "Herriari orriaren bidez) buzoietan zabaldu-ta ezagutarazi bait zituzten beren jarrerak. Ez ditugu, beraz, hemen errepikatuko, la-burki gogoratuko baizik. HBk aurreko egu-netan hitsaldiak ere antolatuta zituen auzoe-tan gaiaren berri emateko.

HBk erroldatik bildu dizkigun datuen arabera, Hondarrribian 13.000 lagunetik gora bizi garelarik eta biztanlego aktiboa 4.138 izaki, 773 omen daude lanik gabe, horietako 373 lana galdu dutenak direla eta

400 lehenbiziko enpleguaren bila dabil-tzan gaizteak. Bestetik, lan egiten duten horietatik 1.402k irunen egiten dute lan eta 1.058K beste hainbat lekutan, beraz, populazio langilearen % 40-k bakarrik egiten du lan Hondarrribian bertan.

Beste taldeek ontzat eman zuten Plenoan HBren azterketa eta eskerrak ere eman zizkioten egindako lanarengatik. Di-ferentziak, hortik ateratzen diren ondorioe-tan nabaritu ziren, funtsean, jarreraren atze-tik, herri proiektu diferentek egon daitez-keelarik.

HBk, besteak beste, Arau Subsidiarioe-tan 500.00 m2 eremu industrial izendatzea proposatzen zuen eta horretarako 80 milioi erabiltzea urtero, hainbat lur espropiatzea Mendelu aldean, pabelloiak piskana eginez joatea, jarriko den industria mota Udalak kontrolatu ahal izatea, ikerketa bat enkar-gartzea 8-10 urte barruko lan beharrak az-tertzeko, langabezia daudenentzako lan-bide ikasketak eta erreziklajak erraztea, bertako nekazar eta arrantzako iniziatibei laguntza ematea, kai Bernian 5.000 m2 arrantzako industrialdea egotea, arraina herrian bertan prozesatzeko industriak jar-tzea, Eskabeteko pabelloia lortzea, e.a.

Lasken orrialdetik



Azkeneko urteetan herrian bultzaldia izan duten gauzen artean bada aipatzea merezi duen bat: Itsas-etxea. Eta ez, egin zuten etxea halakoa edo holakoa delako, baizik eta barrenen sortu den bizitasuna kanpora ere isuri delako.

Oraingoan bizitasun horrekin zerikusi haundia duen batekin, bakarra ez dela ba-dakigu ere, aritu gara blagan, GREGORIO TIFERekin.

L. Zubeldiak hizkuntz gertakari berexi bat gogoratzen digu.

M. Mariskalek bere kezak agertzen dizkigu Ameriketarik.

Hondarribiko tradizioa Aste Santuan ere gordetzen dela dio M. Ugaldek.

Nola prestatu sakarailua ilarrekin azal-tzen digu J.J. Lapitzek.

Aitor Alegriak bere initzia ematen digu Amaia Zubiniaren kantaldiaz.

Txantxiku'n abenturak kontatzen hasi zaigu Hilario Martinez.

Idoia Otegi, 12 urtez, Klingenthal-go akordeoi lehiaketara doakigu.

Eta abar...



EPISTOLATIK OPERATU BEHARRA

Hondarribian gehienbat euskaraz min tzatzen zen garain zentralismoak eskoletan bost edo sei orduz erdara hutsa erabiltzera behartzen gintuen, euskaraz tutik ere ez zekiten maietxein. Eta egoera hark, nolabait ere, markatu egiten gintuen.

Eskolara xintxo joaten ginenak loritoen antzera mintzatzen ginen, gehienetan zer esaten genuen ere konprenditu gabe. Eskolara joaten ez zirenak, berriz, herrian erdara gehituz zihono alabera, batzuetan kanpotarren farregarri izaten ziren, egoera nahasi hark halako euskara berexi bat sortzen zuelarik. Zer esanik ez, berrogei urtez bere errotik atera eta zapaldu nahi izan dutenean. Baina alferrik, hemen ari bait gara behintzat erdipurdi idazten eta hernia min tzatzen.

Hizkuntzak, besteren artean, geure iza-teko modua agertzen digu eta oso ondo agertu zion gure Inaxiri ere berea.

Andre langile eta garbi porrokatua zen, baina harroa eta bere ustez dena zekiena. Fallo hauek itsutzen zuten hizkuntza aberasteko eta beste gauza asko ikasteko, gehienetan besteren farregarri bihurtuz.

Behin, egunero bezala, Mariaren etxera joan zen eta honek galdetu:

—Zer txarri ekarki duzu, Inaxi?

—Berri txarrak, Maria gaxua, berri txarrak.

—Zer, ba?

—Gure Joxemiel operatu behar.

—Operatu berriz? Nondik?

—Epistolatik, Maria gaxua, Epistolatik!

Niebes, tertulia hartako beste lagunak, segidan esan zion:

—Hau andre aldrebesal Fixtulatik, neska, fistulatik!

Eta Inaxik:

—Aizan! Hik esan bear nan neri nondik operatu behar duten gure Joxemiel? Ni medikora fan, neri berberak esan eta hik jakin nondik operatu bihar duten gure anaia? Haatik, hau "màs que tú" miñon gogorragua dun. Epistolatik eta epistolatik! Horratz jakin, nahi badun. Hau bestia berriz ari diguna...

Niebesek ixildu behar izanduz, Inaxi tontor haundiko andrea, bait zen, konprendituz alferrik zela itsu bati argia eskaintzea.

Gizonak, hizkuntzaren laguntzarekin agertzen ditu bere pentsamendu, sentimen eta bere problematika guztiak. Amen bularratan jasotzen du laguntzale inportante hau. Berak kokatzen du gizon bakoitza lurralde berexian eta herrien nortasuna sendotzen laguntzen du.

Hau horrela izanik, ezin onartu dugu portxakeriak eta azpikeriaz nortasuna zapalduz besterena hartzera behartzea. Zuzengabekeria handia da.

Baina nere ustez, hizkuntzak zerbaite gehiago ere eskaintzen digu. Gizona ez da bere hizkuntzak egin duena bakarrik, gizo-

na gizadiaren eta izadiaren zatitxo bat da, egiaz bere errealitateaz jabetu nahi badu, eta zerikusi haundia dauka hauekin. Orduan, begiramen zabalez eta belarri finez entzun eta onartu behar ditu hizkuntza guzietatik datozen pentsamenduak, aurrerapen eta argibideak, honek iritsi ditzakeen mugak iritsi arte.

Lourdes Zubeldia.

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Maiatzak 1 - 7: Mai
8 - 14: Iraola
15 - 21: Erauskin
22 - 28: Mai

Mai, Alm. Alonso Kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Maiatzak 1: ez dago ogirik
7: Arratibel
14: Garmendia
16: ez dago ogirik
21: Martinez
28: Arratibel

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212

EUSKARAZKO MEZAK

Egunero arratsaldeko 7etan Portuan

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7,30etan Portuan

IGANDEETAN:

Goizeko 8,30etan Betherranean
9etan Amuten
9,30etan Guadalupen
11etan Portuan

BESTE ELIZKIZUNAK:

Apirilaren 25ean San Marcos Eguna, OPI-LEN BEDEINKAZIOA goizeko 9etan Parrokian.

Apirilaren 28an arratsaldeko 7,30etan SENDOTZA Parrokian.

Maiatzaren 14ean, goizeko 10,30etan haurren JAUNARTZEA euskaraz.

KORRIKA 6



(DV, Lusa)

Apirilaren 15ean, larunbata, goizeko 11,30etan Hondarribira iritsi zen, AEK-k antolatutako Korrika Gaintxurizketatik bueltan. Portuko kaleak igaro ondoren Santa Engrazia, Amute eta Mendelutik itzuli zen, Irun zeharkaturik Hendaiarantz abiatzeko. Zazpi kilometroetan Institutoa, Eskifaia, arrantza-leak, Ikastola, Biteri eskola, Amuteko Elkar-

tea, eta Hondarribiko HBk eraman zuten lekukoa, Mendelun Irungo HBri emanaz. Gauoko 9etan Anje Duhalde eta bere taldea aritu ziren Kofradian. Udalak bertako jaialdia ordaindu zuen eta uko egin zion beste-lako laguntzak emateari. Argazkian Esteban Olaizola Arrantzale Kofradiako burua eta HBko zinegotzia lekukoa eramaten.

EUSKALDUN BATEN BELDURRAK

Paradoxikoki, azkenaldi honetan gizaki bakoitzaren individualtasunaz eta bereizitasunez zenbat eta gehiago pentsatzen duen bakoitzean, orduan eta gehiago konturatu naiz persona bakoitzaren dimentsio sozialak. Gizakiak alere sozialak garaia alpatu zuen norbaitek mendeak direla. Bakoitzak bere pentsamendu eta kontzientzia propioak baditu ere, egia da bizitzea tokatu zaigun kontestu sozial konkretok zer ikustea baduela gure pentsamenduetan, gure balioetan, gure sinismenetan. Hau da, eta sinpleki jartzearen, nazio gizarte eta sistema bakoitzak sozial berezi bat sortzen du. Gizarte bakoitza, orokor, kontzientzia berezi bat dela esango nuke.

Zenbat eta interdependenteagoak diren gizarteak osatu dago gaurko mundu modernoan. Kontzientzia sozial desberdinak harremanetara bultzatuak daude bat bestearen beharretan daude. Beste baliokak, beste sinismenak, beste jokabideak, beste gizarte, nazio eta kultura ulertzekotan behar beharrezkoak dugu, gaur egun inoiz baino gehiago, bakoitzak bere kontzientzia soziala, bere nortasuna, argitzea eta ulertzea. Atzerrian nagokarrik, nere euskaldun-izate eta nere euskal nortasuna direla medio kezkan eta katzakan aritzen naiz behin eta berriro nere buruarekin eta inguratzen nauden gizakiekin. Atzerrian egoteak ematen duen perspektiba eta esperientziaren bidez inoiz lehenago ez bezala konturatu naiz herri baten osakide izatearen balioa benetan zein den. Batzuetan errealtatearen kontra gogor egiteko erabili dut sinismen hau, bestetan beste kultura baten parte diren ikuspuntuak nerekin konparatzeko besterik ez, beste batzuetan berriz, mundu moderno, teknologiko eta desgizakor honek hartu duen norabide geldiezinen aurrean beste hautabide bat dagoela sinitaratzeko nere buruari.

Estatu Batuetan bizitzearen esperientziak -Bush eta Dukakisen kanpaina politiko lotsagarria dela medio; Statue of Libertyren izenean eskututaren diren hainbeste eta hainbeste diskriminazio forma direla medio; aurreko ordutan aulki elektrikoan hil duten Ted Bundy-k esandako egia direla medio; hipokresia bihurtzea inisten den gizarte honen etnozentrismo nabarmena dela medio; Mc Carthyismo garaia oraindik bizirik dagoela ikustea dela medio; sistema honetan telebistak kontzientziak eta baloreak kontrolatzeko eta manipulatzeke duen ahalmen beldurgarria dela medio asko eta asko ikasi dut munduko bazter honen bereizitasunaz; denbora berean, beste hainbeste edo gehiago ikasi dut Euskarriko bereizitasunaz. Beste eskala batean, beste izen eta beste aurpegi batzuekin, beste idiosinkrasia batekin, gure Herria



sistema honen bide bera jarraitzen ari dela konturatu bait naiz Pentsamendu honek izugarriko kezak eta beldurrak sortzen dizkit.

"Divide y vencerás" dio esaera zahar batek. Eta guri horixe gertatzen ari zaigu. Sakabanatu gaituzte, elkar-sakabanatu gara, gure herriaren eta kulturearen potentziala zorrotz, edo behintzat, zaharkituz. Arnak eta tiroak, behin eta berriro kredibilitatea gailzen saiatzen diren politikeroak, bolteraren ehizean besterik ez dabilta talde politikoak, protagonismo gehiegizko gose hori, hots-hotzean azken milimetroraino kalkulatuako oportunismoaren ibilkeria, ikurrina eta beste sinboloen erabilte interesatuak. Eta nahasketa guzti honen erdian, elkar-sakabanatze, elkarbereizte, elkar mutur jotze lotsagarria. Zer esan nahi du gaur egun euskaldun izateak? (Zenbat erantzen desberdin jaso genezakeen ez dut jakin nahi ere; norbait lana errazten ari gatzakio).

Nazioen interdependetia geldiezina dela eta, gure onerako harremanetan parte hartzeko gai izango garen duan jartzen dut gure artean harremanetan aritzeko kapazak ez garenean. Multinazionalak eta korporazio handienak enpresa txikietaz eta erdi mailako enpresetaz jabetzen ari diren bezala gutaz jabetzen bukatuko al dute "enpresa" handienek?

Jarrera eta jokabide honek ez badu aldatzen, beste norbaitek aldatuko du gure etorkizuna, eta ez da izango ez, hain amestutako etorkizun hori.

Herri bat izatearen garrantzia ez arren, herriaren osakide izatearen kontzientziatzearen garrantzia azpimarratu nahian, belduraren eraginez bultzatua etorri naiz hitz bi esatera. Nik ere norbait, zerbait, nere herriaren integrazioa eta askatasunaren alde bultzatzeko gai izan nahi nukeelako. Eta beldurra -edo beldurraz bultzatu nauela esaten dut. Gaurko mundu modernoan zer

nolako inportantzia duen herri eta gizarte bakoitzaren -tradizioz zapalduak, baztertuak eta sakabanatuak izandakoak bereziki- nortasuna mantentzea eta kulturearen benetako balioa ezjakitearen beldurra; herriarekiko bakoitzak duen hainbeste eta hainbeste egiteko ahaztutzearen beldurra; beste gizarteen, eta gure gizarte beraren gutsaldiez inoz ikasteko agalmena ez izatearen beldurra. Beldur ikaragarria.

Aukerarik gabe euskaldun jaio nintzen, ondoren euskaldun izatea hautatzeko, eta azkenik zer den euskaldun izatea eta izate horretaz kontzientziatzearen garrantzia ulertu dut. Gizaki bakoitzaren antzera, ni ere izaki berezia errepikaezina eta indibiduala naizela sinisten dut, eta inoiz ez alenatua izateko, inoz ez zapaldua izateko, inoz inolako sistemen menpean zerbaki huts bakar batean ez bihurtzeko bururakutako dut gor-gorrian beti. Nere indar eta buruka indibidual guzti hori nere herriaren egoeraren hobetzearen alde ez badut erabiltzen, gizaki baliagarria ez naizela diot. Nere gainetik dagoen sentitze, sufritze eta ameste baten zabalagunea naiz. Bai, gizaki bakarra naiz eta beti izango. Hondarbitarra naizen bezala eta bikingo naizen bezala.

Nere "euskaltasuna" eta "bikingotasuna" noizbait galduko banitu ez nintzateke ez inoz gehiago gizaki bat izango nik hitza ulertzen duan zentzu osoan. Izaki biologiko huts besterik ez nintzateke bihurtuko, sistema organiko itzi batean besterik, ez eta orduan, konturatu gabe hila biziko nintzateke plaza bakarti baten erdian harrisko estatua mutilatu baten antzera. Ametsik gabe mutilatua. Eta ametsa -nahiz eta gu behin eta berriro utopian bihurtarazten saiatu- bizirik dagoen bitartean, ni ere bai.

Martxel Mariscal

Alfred, N.Y.

1999, Martxoak 9

TRADIZIOA

Tradizioa, gure aurrekoek belaualdinrik belaualdi pasa diguten hizkuntza, eta lengoia honetan kontu ditziguten ipuin, kondu eta historia, jakintza osoa, eta pasa ditziguten hitzik gabeko ohiturak dira, gizaldien artean eten handiegirik gerta ez dadin.

Betidanik betiko arieroko eta azken berrogei urtez diktaturak hautsi nahi izan duen giza-ehun maitagarri hori ari gara euskaldunok berriz gureganatzen; Hondarribiak jakin du gordetzen orain arte gogoz eta muinat osatzen den lokarri mehe-iraunkor hori, bertako inor ez dadin herrian bertan galduta geratu.

Joan den Aste Santuan sentitu ahal izan dut bizi-bizi Hondarribiko tradizioaren bidean langile porrakatu izan den herrikoseme baten ardura hunkigarria.

Ostiral Santuko elizkizun nagusia ara tsalekiko Setarako iragarria zegoen, XVIII, gizaldiaren ekarria izan zen Kristo gurutzatuaren irudi ederra Gurutzetik eraistea eta lildleunaren tradizioa, biak, dira egun honetako egintza ikusgarrienak. Hiruretarako hasia zen parrokiala eliza pauso-zaratat eta sarrerako bi ate erraldoien erro negartien durundiaz betetzen. Hasieran bakan, eta laister presak bultzata, Neroni han nintzen goiztar, leku bila, bestela ez nintzen organo batetan bezala entzuten ziren zarata hauek illatsan hartan entzungo. Bostetarako mundua zegoen eliz barruan, eta eliza bete ahala zarata hilago entzuten zen. Jendea gero eta presatiago, urduiago, harrituago lelotzen zen dagoeneko hartuak zeuden toki bila heltzen zenean. Giza-uholdean gora, eta aldre bertaraino hasia zen bi saietetatik betetzen; Gipuzkoako Diputatu Nagusia den Imanol Murua bera han ikusi genuen protokolorik gabe jendartearen, demokratikoki zutik, eta hasi zen aldre baten joan etorria eta argiz jantzen.



(F. Iginiz)

Garaiz hasi zen elizkizuna, eta bata bestearen atzetik, patxadan eta neurriz joan ziren pertsonaia nagusiak, apaizak, apostoluak, erromatarak, denak euskal sudur berarekin, eta hasi ziren hemen hitzak, hitz santuak, eta musikak, organo eta bandakokak, hauen konpasean iristada fineko sartutzaileen pausok, eta azkenik ekintza hunkigarriak, banan bana, bizia den zerbait jendaurrean antzesten.

Don Martin Iturbe erretole jaunak Hondarribia-ko azken alean idatzitako lan batean irakurri nuen, konturatuzen nintzen zenbat lan eaditu kosta ziren begiz ikusten ez genituen baina norbaizkuz egi zituzten konponketa eta berritzeak, pipiak jotako santuen irudiek edo andak edo oin-euska-

riak, denen aurrean eskandalagarri hausi ez zitezen.

Zenbat ardura eta lan, tradizioaren lokarria eten ez zedin!

Nire kabuz ari nintzen emanaldi eder honek XX gizaldiko bidaia egin eta gero gaur, oraindik, zenbat pertsonen ardura, fede, eta apaizen liturgia alde batera utzita, gainontzekoen antzezpenetako debozioa, eta honek eskatzen zuen zuzendaritza.

Prozesioa hasterakoan, han zebiltzen gizonak presarik gabe bakoitza bere Pasio-irudira hurbiltzen, eta antolakizun honen burua ari zen han hemenka charrak egiten.

Eta Florentino portu jauna falta zitzaidan.

Jakin nuen goizean han izana zela presatikunie gainbegiratu ematen. Eta pen tsatu nuen, laister, maiatzean, 91 urte bete-ko zituen gizona ez zela bere aspaldiko ardura honetatik kanpora geratzea erraza izango... eta han dator, maitasunaz inguratutik, gizona, zutik, azken gain-begiratu bat ematera.

Bere ordekoa han zebilen arduraz...

Hori ikusi lasaituko zen don Florentino irripartsu ikusten nuen eta jendetza kanporantz iretzen hasi zenean, Prozesioa kale nagusitik ikusteko, agurto nuen idazlea, Hondarribia-ko historiagile ospetsua, eta zorindun, 90 urte bete, lanez eta tradizio lanez ondo bete eta gero, oraindik bere adin eta esperientziaren gain-gainetik gureak ez bezalako begiekin hura dena ikusteko grazia Jaunak eman ziolako.

Martin Ugalde.

EUSKALDUNBERRIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN

Aurtun ere Eusko Jaurlaritzak plangintza bat antolatu du euskaldunberriek familia giroan euskara praktika dezaten.

Familia euskaldun batekin hilabete bat igaro nahi duten ikasleek eta euskara ikasten ari den bat bere etxean hartu nahi duten familiak, Udaltzeko Euskara Zerbitzuaz jaso dezakete behar duten informazioa.

Eskaerak aurkezteko epea Maiatzaren 15ean amaituko da.

KAI BERRIKO LANAK GELDIRIK

Otsailaren erdi aldean, Eusko Jaurlaritzaren aginduz, lanean hasi zen Moyua enpresa Kai Berrian Ipar-hego dike egin asmo: urpeko azterketak, gizon igelak, makinak, tresnak godeltzeko kaxola egin eta dike luzaletxo den puntutan harnia botatzaren hasi ere bai. Handik hamabost egunetara, ordea, dena geldi zegoen berriro, frantsezen baimena falta dela eta.

Badiako urak hiru zatitan daude banatuta 1856ko abenduaren 2az geroztik, eta Espainia eta Frantziaren arteko akordio hura 1959ko uztailaren 14ean berritu zen. Akordioaren arabera zati bat frantsesa da, bestea espainola, eta erdikoa zabalea, bi erresumen arteko ur komunak dira. Hori

dela eta, Kai Berriko zati handi bat ur komunetan dago eta horren muturretik hegaldara ehun metroz luzaia nahi den dikeak ere frantses agintariaren baimena behar du (hala ere iparkeko dike luzea baimenik gabe egin zuten bere garain, artean Eusko Jaurlaritzaren ardura ez zelarik).

Baimen hori abenduaren 21 ean eskatu zitzaizen frantses ordezkariel Pirineotako Batzorde Internazionalen IV Azpibatzordearen azken bileran, baina erantzuna oraindik ez omen da Espainiako Kanpo Ministeritzara iritsi. Hala ere, baimen hori lortzeko ez dela inolako eragozpenik egongo esperia da eta laister emango dutela.

SAKARAILUA ILARREKIN

Naturak aldi berean eskaintzen dizkigun produktuak elkartzea arte bat da, eta, enpismo hutsez, horrelaxe egin izan dute beti sukaldeen ardura izan dutenak.

Udaberriko sasoi honetan, Hondarribiko andre sukaldariek eta "martinsukaldeek" ongi baliatzen jakindute zorioneko hala-behar bikotiz batez: ilarren garapena eta eta sakarailuak kai ondoko arroketara hurbiltzea (nik bat harrapatu nuen, gaztetan lehenengo kaiaren barruan).

Gure baratzetan sortzen diren ilarrak bikiak izaten dira; egongo dira hauek bezain onak, nekez, ordean, hobeak. Mota asko dira "pisum sativum" deitura zientifikoaz izendatzen diren horietakoak: molarrea, ñañoa, jateko leka dutenak, eta abar. Hemen erein ohi dena goitsua da eta adarrak behar ditu kiribiltzeko, eta lekak, erre-monte baten itxura gogoratzen diguna nolabait, zortzi edo hamar ale eduki ditzake. Frantsesez lekadunaren deitura orokorraz bataiatu zuten motakoa da: "petit pois". Baratzen orientazioagatik, udaberrian oso eguzkitsuak, eta lurrares osagaiengatik agian, Hondarribiko ilarrak oso xamurrak eta goxoak dira, gehiegi garautzen uzten ez bazaien behintzat.

"Rascacio" (*Scorpaena porcus*) eta "cabracho" (*Scorpaena scrofa*) bi mota dira, eskorpenidoen familiakoak, askotan nahastu direnak eta koloreari eskerrak bereizten ditugunak, lehena arrea bait da, bigarrena, beriz, gorritza.

Kasu biotan "krabarroka" ezaguruz ari gara, Hondarribian bakarik "sakarallo" deitzen denaz alegia.

Bere itxura arantzadunagatik eta begitarrean adar gisako bat dutelako "kabra" izen orokorra hartu dute, "krab" metatesiaz, eta horrela kabrarroka, krabarroka, itxaskabra, aitxakabra, ilisatza eta, era bixian, Zumaiaitik aurrera, Gómez arraia, gombi eta gomito, azken bi deiturak lehenengotik sortuak direlarik antza denez.

Esaten dutenez, arrai hau, itxura higuin-garria duela eta, rapek edo "gaizapauk" bezala, ez omen zen preziazuegi inguru hauetan, eta Gómez abizena zuen etorri batek, Zumaian kokaturik, arraia itxuragatik baino areago zaporea eta haregiagatik berrexten zuena, sekulako kazuelak prestatzen omen zituen besteek arbutatzen zutenarekin, eta... herri honetan izengoitizaleak garenaz gero, arraiari jarri zituen izengoitia oraingoan. Hondarribiko deiturari ez diot beste erlazioirik ikusten "sakaraila"-rekin duen antza baizik. Horrela esaten diote Iparaldean eta normala da arrantzale batzuek eta besteek fonetikaz berdintsuak diren hitzak erabiltzea.



Sakarailua harriekin bat eginda (M. Ibañez)

Negua ur sakonetan igaro ondano, sakarailua, axalera hurbiltzen da udaberrian, ugaildu beharrak eraginda, eta geldi-geldi egoten da hondo arroktasuetan, inguruko harrien itxurarekin nahasteraino bat egiten delarik. Oso jatuna denez, amuam xixareak, txipiroi puskek, edo beste edozein arrainenak jarrita harrapa daiteke. Betiko arrantzaleek badakiten arren, aipatu beharra dago arantzak eta erradioak dituztela, buruan eta bizkarrean batez ere, eta pozoi-dunak direnez oso ziztada mingarria egiten dutela.

Lurreko eta itsasoko elikagaiak erabiltz oso kazuela simple eta txit goxoa prestatu ohi dugu hemen, honela maneaturik: arraina garbitu eta ezkatak kendu ondano, 4 bat zentimetro lodirekin zatitan ebakitzen da. Olia daukan kazuela batean ohandte bat



Rascacio Krabarroka (Scorpaena porcus)



Cabracho Krabarroka (Scorpaena scrofa)

egiten da tipula berria pikatuta, eta xerrada batzuk pataki berriarenak era jartzen dira, bigunduz doazelarik arraina jartzen da eta gainean ilarrak, aleturik. Gatza bota eta irakiten utzi, ur edo txakoli pixka bat ixuriz, hamabost bat minutuz.

Juan José Lapitz.



HOTEL BERRIA ARMA PLAZAN



Apirilaren 21ean, ostirala, arratsaldeko 8etan San Nikolas hotela inauguratu zuten Arma Plazan. Lau planta ditu, 160 metrokoa bakoitza. Jabeak, Maria Jesús Jauregi eta Eugenio Carrión dira, lehen Murruko Txoko Goxo ostalua zutenak. Arkitektoa Pello Errazkin izan da. Arrakasta handia opa diegu etorkizunean Hondarribiaren onerako.

Blagan

Itsas-etxean bada, besteak beste, hirugarren bizitzan Arrantziale Zaharren Elkar-
tea deitzen den soziedade. Edozein mo-
mentutan sartu eta giro ederra ikusten da
nonahi.

Giro horretan gizon asko ikusten badi-
tuzu ere, bada seguraski papen kontuan,
edo barran lanean, edo beste mila gauza-
tan atzera aurrera atzamango duzun bat:
Gregorio duzu.

Bertako langilea duzu Gregorio, eta
zaude seguru zerbaite eskatzen badozu egi-
nahalak egingo dituela zuri laguntzeko.

Tori, bada, bere hitzak:

—H: Gregorio, zu itsasoa ibilia zera...

—GREGORIO: Bai, itsasoa 17 urtetan
hasi nintzen. Urte pare bat egin, eta 19tan
soldadoskatik libre gelditu nintzen. Orduan
makinista deitu zaiaten barko haundi bate-
kotz. Hiru hilabete ibili nintzen *Manzanon*
Daniel Gonzalezekin makinista, berekin
praktikatzen. Sartu ziaten *Madre Macarena*
izena zuen barkuan eta bermiotar batekin
ibili nintzen hiru urte. Hura joan zen eta ge-
ratu nintzen ni, egin nittuen beste lau urte
hau.

GREGORIO TIFE

Esamina atera nuenean joan nintzen
beregana eta besteak eskeintzen ziatena
eudek ezin ziaten eman. Patroiak esan zian
nere marxza segitxeko, eta holaxe fan nin-
tzen *Goiz argia*.

—H: Biñon, *Goiz argi* ere laja behar izan-
du zenuen...

—G: Hazian gorraidea, eta esan ziaten
makinan ez ibiltzeko, biñon gustatu egitten
zian asko, eta ez nuen lajatu nahi.
Gorraidea gero eta gehiogo. Bidegainera
faten nintzenen esaten zian: "Tienes que
dejar la máquina". Operazioa egin ziaten.
Gero, zoritxarrez kulata bat altxatzen ari
nintzela, klaketako bat eta sei hilabete
ohean *hernia al disco*, deustako kapaz ez.
Eta esan ziaten itsasoa lajatu behar nuela...

—H: Idorrera, eta gainera lanik gabe...

—G: Itsasoa lajatu ta lanik gabe. Eman
ziaten zazpi mila pezeta, eta bi haurrak
gu. Hernen ezin nuen deus ere aurreratu
medikuakin ta.
Frantzira fan eta astean bi bisita egitten ni-
tuen, mila pezeta kentzen ziaten, aparte
biajea, eta ezin nintzen bizi.
Kale gainean nintzen eta obligatua izandu
nintzen nere amari esatea:

Mixikoan hirurogei lagun izango ginen, eta
atera zuen orain dagon honek, liñakik. Eta
esan ziaten oraindik gizean bakarrik
zela biñon atsaldetan ere irekiko zutela,
beste oposizio batzuek izango zirela, ni
preparatua fateko. Estudiatzen ibili nintzen
eta atera egin nuen, ehunda hirurogeitan
bigarren atera nintzen.
Egundu nintzen urte t'ardi ebentual, sei hi-
labete ta sei hilabete hartu ziaten, hori zen
1980ean. Hori izandu zen loteri bat nere-
ztat, bizia egin zian ireki.

ARRANTZALE ZAHARREN ELKAR- TEA

—H: Nola sortu zen soziedade?

—G: Etxeko delegadua, Agustín Tife, eta
Javier Agote, Agustianen goian dagona,
beste delegadua, huriaiek egin zuten esan
maniñel zaharren etxea, Hogar del marino
bezala funtzionatu behar zuela.

Asanblea bat egin zen pensionistekin,
eta junta bat aukeratu egin zen: presiden-
tea, bigarren presidentea eta bokalak. Hori
gertatu zen 81ean. Hasi zen Arturo Parda-
vila presidente eta gu bere *diszipulak*.

—H: Soziedadean, zenbat sozio dire?

—G: Hor dire gutxi gora behera 160 bart
sozio, legera legera berrehunda gehiago. It-
sasotik pensionista direnak automatika-
mente sozio dire.

—H: Nola hartu zuen jendeak sozieda-
dea eta hasieran? Hurbiltzen zen?

G: Hasi zen talde bat eta esaten ziaten:
"hasiko dugu, Gregorio, hasiko dugu!" hasi
ginen salda egiten, ta tortilak egiten ta jen-
dea hasi zen: "Hi, itsas-etxean salda eerra
ba emen duk eta?" ta Itsas-etxera.
Jeneroa merkeko ekartzen genuen, merke-
go saldu ta pixkan-pixkan gotti faki da.

H: Zein da zure lana soziedadean?

G: Nik kontuak egitten ttut, nik emaki
ttut goiko kontuak, eta hilabetero presen-
tatzen ttut juntan.

Orain dela hiru urte arte, nik amakin se-
gitzen nuen lanean goizetan, eta etzen inor
hemen egoten. Hasi denda itzi zuenean
asanblea bat egin zen, eta eskatu zuten gi-
zon bat behar zela hor. Yake ni atsaldetan
izaten nintzen inor biñon hobeto nahi zutela
ni jartzera. Asanblea egin zen eta botazioan
denak eman zuten nere izena.

Nere goiko lan horretatik fuera, behean
izaten ttut, o bilerak direla, o zinea dela, o
hilean mixian dela odol-emaleen eguna
dela, alde batean ta bestean egitten naiz
lotua geldittu.



Etorri ziren esamina atera behar nula ta
esamina atera behar nula, joan nintzen eta
ez nuen suerterik izandu. Orduan esan zia-
ten: "hi makinakin ibiltzen yaiz ta baduk ka-
pazidadea makinakin ibiltzeko, ta hik nahi-
tikan titulua atera behar duk".

Hasi ziren eskolak Donostian, ta atera
nuen titulua: bigarren makinista. Armado-
reari esan nion ia *primeroa* aterako nuen,
hori zen hemendik Terranova arte. Armado-
re bat jarri zian kontra bezala, ez zian arpe-
gira begiratzin, patroiak bai, nik egin nuen
pena hartu.

"Ama dendatik ekar nazu lana, ezin naiz
kale gainean eta zuri eta andrian gurasoa-
keri kendo nere umiakari jaten emateko".
Hasi nintzen amakin dendan lanean.

ITSAS-ETXEA

—H: Eta Itsas-etxea sortu zen...

—G: Zorionez etorri zen Anbulatorioko
plaza hori. Anbulatorio-Itsas etxea egin zu-
tela eta esan ziaten aber nahi nuen presen-
tatu.

HONDARRIBIKO PILOTA ESKOLAREN DEIA



Gero, etortzen diren umeakin ezin dut kanerik atera. Nahi dute utzitzea, askotan lajatu egiten dut gehiegi sartu gabe, biñon beste askotan berriz, pena ematen nau, biñon gauzak egiten dute hautsi, eta hori egin behar da moztu.

Gero, soziedadean sailatzen naiz. Goi-zean bederatzitan sartzen naiz lanean, ateratzen naiz ordobat'erdiki, ordobiak laurden gutxi; hirutan sarzen naiz eta ateratzen naiz bederatzitan, bestetan hamarratan, ordobatatana...

—H: Eta nola dago etxe barrango liburutegia?

—G: Beheko liburutegian behar da gizon bat. Agustinek esan zian seguramende denborakin, behar bada, onean, datorren urtean beste gizon bat sartuko dutela. Orain Kotte Gebara egoten da, biñon Udaletxe-koa da, eta hori bukatuko da, horrek ez du gure etxeakin ikustekorik. Hori bukatzen denean, gure liburutegia jartzeko eta, behar da gizon bat permanente hortako.

EKINTZAK

—H: Antolatzen duzian Mus-txapelketa txol ezaguna da...

—G: Hori egiten dugu zahararren kanpeonatu bat. Zaharrekana urtero egiten da. Zazpi urte emaki ttugu.

—H: Laguntzarik eta...

G: Joxe Antonio Maitekoa oso ondo portatu da, eta egin dugun kanpeonatu de mus guztian, zazpitan fan gera ekursioz, bodegatarra, sosik pagatu gabe, Cenicerora.

Gero, erosten digogun etxe batek edo besteak, hiru Kaja de Ahorrosek, Udalak, Kofradiak... ematen ttuzte trofeoa.

Eta parte hartzen duten denakeri ematen diogu trofeoa: fan den urtean hogeita-malau pareja ziren, eta hiruurogeita zortzi trofeo, hiruurogeita zortzi labain, hiruurogeita zortzi botilla ardo markakoak. Eta mixiko lau parejakeri esparrago lata bana, eta Kalak, Javier Ibañezek, radio bana ragalatzan digu.

—H: Beste ekursio batzuek ere bai...

—G: Bai, Cervezas San Miguelekin egin ttut sei ekursio Burgosera, lau zaharakin eta bi marifel gazteekin. Denak oso konten etorri ziren.

—H: Horrek giro polita ekamiko du...

—G: Gauz hori dena ikusi, eta sarrera gehiago dago. Ikusten dute giro ona, toki zoragarria da, tratua ona da. Eudek mattagarriak dire, eta ni sailatzen naiz eudekin mattagaria izaten. Euden gorabehera, edadea dute eta edadea egin behar da respetatu. Momentu batzuek izaten dire... biño, nik Jaunari eskerrak ez dut deus ere izandu. Giroa oso ona izan dugu.

—H: Eta KORUaren kontua?

—G: Hori gertatu zen Agustinen gauza. Agustín zagon inondik inora horren atzetik, eta egun batean esan zian: "Zergatik ez dugu zahararren izenean koro bat ateratzen?" Horrek emaki zituen gargero lau bat urte idea horrek. Bilera batean berak bota zuen bidea eta etzen inor animatu.

Eta orain dela bi urte, Jesus Peñakin hizketan ta egin bihar digu, ta egin bihar digu, ta hasi ginen. Jendea ematen du gus-tatu zela zaharrak hor ateratzea ta neri esan ziaten, jendeari esan nion. Hasi zen ta Tomas Galarzari deitu eta egin zen etorri, ta oso amable, ta berak erakutsi kantak eta

kanta zaharrak eta hala ibili ginen.

Fan den urtean ere deitu genion ta hala jendea konten. Aurtin jende gutxiago joan da, biñon datorren urtean jendea ez dena fan prometituta naute eta bizi badire joango direla. Ta aurtin izango da talde haundio-goa.

—H: Eta gero, afaririk edo egingo zenu-ten...

—G: Junta bat egin genuen eta egin behar zela bazkari bat. Aurreko urtean egin genuen soziedadean, eta aurtin fan gera Beko Errotara. Han jan digu, portatu dire maravilosamente Felix eta Eva gurekin, Zerberik autobusa jarri zigun, sosik kobratu gabe, eta eguna pasa genuen primeran.

Eta zeinen ederki pasa zuten gogoan duela laja dugu Gregorio eta bere fami-lia,

Hitzok argitara direnean, gurekin izandu zuen animoari eta gogoari, amon-rik eman gabe, itxekiko dielakoan...



Tx SAGARTZAZU



Gipuzkoako Foru Aldundiak "Euskal Kantagintza" izeneko zirkuitoa antolatua du irakaskuntza Ertainek ikasleei zuzendua, euskara eta literaturazko klaseen osagarri gisa, musikaz gainera eta honen bidez euskal idazleen testuak ezagutu eta goza ditzaten.

Hau dela eta, Ama Guadalupeko Ikastetxean Txanbela eta Amaia Zubiria izan genituen kantari, otsailaren 17an eta apirilaren 7an, Bigarren emanaldaren berri ematen digu Institutotik bidalitako lan honen.

AMAIA ZUBIRIA ETA PASCAL GAIGNE

Amaia eta Pascalek bikote eder bat osatzen dute. Ahotza eta kitarra elkartuz 1983ko irailean hasi ziren lanean.

Musika tradizionalan oinarritzen dira.

Amaia Zubietarra eta 1976an sartu zen musikaren munduan, Txomin Artolarekin. Honekin, X. Lasa, Gabi F. eta C. Bustorekin "Haizea" taldea osatuta Herri Gogoan plazaratu zuten diskoa. Horren ondoren Xoxoan "Hontz gaua" argitaratu zuten. Oraingoan X. Iridorekin osatu zuten taldea. Gero "Etxahun eta Etxahun" izeneko diskoan parte hartu zuten, Imanol, Xanti, Karlos Jimenez, Achiary eta Pascal Gaignerekin batera.

Xabier Lasarekin "Segoviako ihesa" filmean gidoi musikala egin zuten, baita "Orain" antzerki taldearen "Kuluxkaka" izeneko lanarekin.

Fran Lasuenekin batera "Oficio de tinieblas" izeneko antzerki obraren soinu-banda ere moldatu du.

1983an Juana Agurain kolektiboa osatu zuten A. Lizarralde, R. Laben eta R. Valeruzekin, noiz behinka imanolen saioetan ere parte hartzen duelarik.

Handik hona bi disko kaleratu ditu: "Egun argi hartan" eta "Kolorez eta ameszez" deiturikoak. Hauetan gure patrimonio diren kanta zaharrak nahiz beraiek asmatutakoak daude.

Talde honek euskal kanta zaharren berri eman nahi du, beren egileen berri eta beraien lanen bat tartean, euskal literatura eta poesiarik bultzakada emateko asmoz. Nor garen eta zergatik gehiago jakiteko asmoz, agian.

Taldeko partaideak:

Pascal Gaigne: bi kitar, sintetizadorea, bandoneoa...

Juan Luis: saxofoia.

Amaia: bere ahotsez Etxahun, Iturino, Otáño eta hainbat kantore, poeta eta bertsolariaren obrak eskainiz.

Hondarribiko emanaldia

Abestu zituzten abesti guztiak ez dira liburuan agertzen, "Itsasoa laino dago" adibidez, eta liburuan dauden abesti guztieta-

tik batzuk bakarrik abestu zituzten. Honako hauek abestu zituzten: "Xoxo beltz bat", "Mutil koxkor bat", "Bizi naiz munduan", "Hondarribia herri txikia", "Brodutzen hari nintzen", "Itsasoa laino dago" eta "Lua lua".

Nire iritziz abestiak oso ezagunak ziren, zeren nik gehienak ezagutzen bait nituen. Abesti politak ziren eta musika ona jarri dietela uste dut, baina "Itsasoa laino dago" erabat hondatu dutela. Abestia ez zen nik ezagutzen nuen bezalakoa, oso motela zen eta beste batzuei ere gauza bera iruditu zitzaion.

Ez dute tresna asko erabiltzen eta uste dut erabiltzen dituzten tresna gutxi horiekin soinu onak lortu zituztela zati garrantzitsuetan musika fuertagoa ipiniz. Asko gustatu zitzaizkidan Pascal Gaignek nola jotzen zuen kitarra, izugarri politak ziren doinuak jo zituen.

Amaia Zubiriak oso ahots onak duela iruditzen zait eta zenbait momentutan harrituta geratu nintzen bere ahotsaren indarrak eta iraupenaz, batez ere "Itsasoa laino dago" abestian.


Egiten duten musika ez zait asko gustatzen, nahiago ditut beste musika mota batzuk, baina hala ere hasieran uste nuen baino politagoa gertatu zitzaizkidan eman-

aldia. Abesti batzuk, agian, luzeegiak eta gauza bera askotan errepikatu zituztenez aspergarriak izan ziren. Uste dut martxa gehiago egon behar zuela, jendea txaloka eta denok abesten, zeren denok genekien abestiren bat.

Uste dut egiten duten lana oso interesgarria dela zeren honen bidez gura kultura indartzen da eta gure herriak bizirik irauten du. Hala ere jendeak ez du atseginegi (nik ere ez) baina saiatu beharko genuke geroz eta gehiago jakiten musika mota honi buruz, gure arbasoen bizitza eta ohiturei buruz eta gure poeten lanei buruz.

Esan beharra dut ez zitzaizkida batere gustatu neskaren jarrera. Hasieratik kontuak hartzen hasi zitzaigun guk ezer egin gabe. Nire ustez beste jarrera bat eduki beharko zuen. Zeren hasieratik etorri zen gu gaizki portatu ginenaren ustearekin eta ez ginen gaizki portatu. Niretat neska izan zen saio hartako gauza txarrena.

Aitor Alegria



HONDARRIBIKO PILOTA ESKOLAREN DEIA

Hondarribia, 1989ko apirila.

Kaixo, lagunak:

Zuengane jotzen dut laguntza eske, egunetik egunera premia larriagoan gabilztz eta. Zergatik garbi neuk ez dakidala, egia zera da, pilote kirol eder eta bereziki gurea inder galtzen ari zaigula, ahalagotze txoil geroz eta gehiago.

Joko gogorra da; publizitate eta zabal-kuntzarik apenas duen, beste hainbat kirolek erruz dutena;... badira holako hamaika arrazoi. Bai. Baina dena dela, denok dugu erru pixar bat bederen, guztiok dugu erru txukizunik arazo honetan. Horrexegatik nahi zaituztet anima eta bultzatzen zuen seme edo ikasleengan pilotarako afizioa pizt dezauden gartsuki, hizkuntzarekin batera kirol hau delako gure nortasun seinalerik zindoa. Horixe bera zioen eta are gehiago Xalbador bertsolariak harako hartan:

Kirola eta hizkuntza, horra hor bi gauza luza dezaketenak herriaren hatsa; baldin ez bazerauku erdalduntzen plaza salbaturen garela badut esperantza.

Argi dago Pilota jokoaren ardura erama-ki dugunok bultzatu, inongo trabak kendu

eta zaletuak bideratu behar ditugula; baino zer arraio egin dezakegu materia prima hori falta bazaigu, zuen seme edo ikasleak ez badatozkigu? Guraso eta irakasleen bete-beharra dela uste dugu haurrengan afizio hori sortzea, arian-arian animatzea eta beuden joko horretan harro sentitzea.

Denon artean gehixeago egin ezean, akabot, "guriak egin du". Hara zergatik jo

dudan, beraz, zuengana laguntza eske: jakinaren gainean egon zaitezten zuen eragirik gabe alper-alpernik ari garela gu, lau makilen muturrean teltatua jartzen bezala.

Besarkada bat.

Hondarribiko Pilota Eskola



1988ko finalak

"HITZEZ HITZ" LEHIAKETA (7)

Seigarren deialdian aurreko hiru asmatzaileak izan ditugu: Alaitz Agirre, Iraitz Arruabarrena eta Itziar Mendizabal.

Hona hemen jasotutako erantzun zuzenak (inork besterik esaten ez digun bitartean):

1) ERAGO

Ganadua askara edatera bidaltzea.

"Behiak eragotzera joan", "era (g) o ttu-zia beyak?".

2) ENDANA

1. Zerrenda, lerro, ilara 2. Berehalako momentua.

"Landareak lau endanatan jarri tinat baratzean".

"hori arbola endana!," "amuitz endana".

"Endana berean etorri zen".

3) SASKI

Odol kidetasuna, herentzia, ahaidegoa.

"Honeri saskitik heldu dio bertsoitako afizioa", "xaxkitik heldu duk horren jenuia", "hau ere gure saskikua duk".

JASKI POTORRUA

Saski mota bat, zumitzez, gaztana edo haritzez egina, kiderrak uztaieren alde bietan dituelarik.

"Tximista"-k hiru jaski mota bereizten dizkigu:

Jaski uárakua: belarra, barazkiak eta eramatekoa. Potorrua baino handiagoa.

Jaski potorrúa: harria, graba, eta abar eramatekoa. Ez belarra eramatekoa bezain haundia.

Jaski pajinakua: potorrúa baino txikiagoa, saski baxua.

5) XAIA

a) "Xaia" da arrantzako tresnak eta tras-teak gordetzeko tokia Hondarrribian ematen zaion izena.

b) Hortik, leku nahasia eta desordenatua ere adieraztera pasa da.

"Beirazan itxe hortan dagon xaya!". "hau xaia dago koarto hortan!".

Bi lagunek huts egin digute lehenbiziko hitzean (erago) eta launa puntu jasoko dituzte; Alaitzek, berriz, bostak izango ditu.

Itziarrek sekulako marrazkiak bidali dizkigu zer den jaskia, domino, otarra eta xistua bereizteko. Toki ezaz ez dugu orain-goan argitaratzen.

▼ ▼ ▼

Hurrengorako hitz hauek proposatzen ditugu:

1) TXANBRA 2) MU (mu hortan) 3) UERA 4) SUJENTA 5) ARGU(R)IAN HASI.

▼ ▼ ▼

Erantzunak, betiko helbidera heldu den maiatzaren 15erako:

"Hondarribia" aldizkaria

"Hitzez hitz" lehiaketa

Euskara Kontseilua

Udaletxea

20280 Hondarribia.

TXANTXIKU'N ABENTURAK

Orain dela urte asko mutiko bat jaio zen mendi aldeko herri batean eta urte batzuek igaro ondoren txol gutxi haunditu zen: ar bat eta bi behatz besterik ez.

Egun batean honela esan zion bere aitari:

—Aita! hemengo mendi guztiak ezagu tzen ditut eta orain itsasoa ikusi nahi dut bidaia luze bat eginaz.

—Seme! ez daukagu dirorik itsas ontzi bat erosteko baina nik egingo dizut goxozko oihalaontzi bikain bat, zure neurmikoa.

—Kontuan hartu bere gurasoek goxo denda bat zeukatala eta aita oso iaioa zela goxozko gauzak egiten.

Bi egunean egin zuen itsasontzi hura, kaskoa txokolatezkoa, oihala edo bela barkillozkoa, masta goxo luze bat, arraunka turroizkoa, titari batekin egin zuen kantina ura hartzeko, eta abar...

Dena prestatu zuenean, hurrengo goizean aita eta amari bina muxu eman eta bere txaluparekin ibai behera abiatu zen, egunen batean itsaso zabalera iritsiko zela jakinez.

Handik pixkatera igel batekin topatu zen eta honek hala galdetu zion Txantxikuri:

—Nora zoaz, Txantxiku?

—Itsas zabalera, hango arrai haundiak ikustera—erantzun zion gure mutikoak.

Ibai behera jarraitu, eta halako batean brankapean bixata pila bat agertu ziren. Txalupa gelditu eta ur azpira begiratuz izuki bat lima tartean nahasia ezin mugitunik ikusi zuen.

—Zer duzu, lagun? —galdetu zion Txantxikuri.

—Ez banauzu laguntzen hemendik ate tzen bertan itoko naiz! erantzun zion arraiak.

Orduan, isatsetik soka bat lotu zion eta indar guztiarekin tiratu eta hala askatu zuen izuki hura bere lokarrietatik.

Bere Laguntza ordaintzeko botika majiko bat gaitz guztiak sendatzeko eman zion izukiak.

Arraiari eskerrak emanak aurrera garraitu zuen korrientearen alde.

Ilunabarrean nekatu eta gosetu zagon. Ibai ertzeira hurbildu, pikatxua bota eta han bertan afaldu eta lotan gelditu zen.


Hurrengo goizean:

—Ai ama! Zer gertatu da hemen? Non dago ibaila? Hau marka arraiak! Nola iritsiko naiz itsasora ez baldin badago urik nere txalupa ibiltzeko?

Zer duk, Txantxiku?—galdetu zion karramarro begihaundi batek.

Ura hondar bihurtu du sorginen batek erantzun zion Txantxikuk.

—Ez, mutiko, ez. Maria behean zio! eta



horregatik gelditu haiz hondar gainean. Arratsaldeko aroian berriz ere ura etorko duk eta hire txalupa uraren gainean geldituko duk.

Aroia etorri arte Txantxiku eta karramarua bertan egon ziren jo ta ke. blagan. Txantxikuk karramaruari goxo puxka bat eman zion eta karramaruak berari itsas karakoi bat tronpeta modura laguntza behar zuenean jo eta deitzeko.

Sei terdiak alde aroia etorri zen eta abarkilloko oihala hego haizeari zabalduki ipar aldera abiatu zen popaidean...

(jaraituko du)

Hilario Martinez

RHOMONEN GARAIA


Gizonak gehiago eta gehiago nahi duen garai hautan beti da ari zerbait asmatzen. Orain bitartean ia beti indutrigintzan ematen zirela aurrerapenak hituta geunden, baina orain ordea bizitzaren arlo guztiakira inbizi da nonbait aurrerapen hori, horrela dirudi behintzat aste hontako egun batez etorri den notiziak.

Urte mordoak izango da ia, txokorrek pixu gehiago har zezaten jendea edo granjeroak hormonak ematen hasi zirela eta nahiz eta gero haragi mota hori jaterakoan edeki nabaritu nola tratamendua edukitakoa zen—ura dariola egoten bait da zartagiratzeakoan—, oraindik ez nintzateke arri-tuko batek baino gehiagok berehontan jarraitzen duela jakiterakoan. Oso atzera joan gabe ere, ardiekin gauza berdintsua egiten hasi zen, hau da, piloren bidez lehenengo eta beranduago erditzea lortzen da eta, ondorioz urte batean bi umaldi egitea lortzen da, baina gure lurralde exkas hauetarako nahiko izaten dute umaldi batekin eta askotan gehiago kendu beharrean hasita gutxiagorekin gelditu beharra izaten da.

Hormona eta pildoren garai hontan,

oraingoan, txanda behiari heldu zaio. Gezurra badirudi ere albisteak zera zion: "behi bakoitzak eman zezakeen esnea, %15etik %20era igo zitekeela BST hormonaren bidez. Gauza guztiak bezala, asmatzen den gauza oso ona izaten denez, ez omen dio behiari inongo kalterik egiten, eta beraz, esne gehiago emateko ez omen du beharrrazten, baina badirudi ordea behiak beren egoera naturalatik irletze honek, bestelako eragina duela uste duenik eta hauen arabera azindak oso indartsu egon behar omen du eta ez hori bakarra, baita lehenago zahartzen dela diote. Dena dela, hormonaren aldekoak oso ontzat bezala daukate, prezio altuak dauzkeen esne-produkzioa igotzeko balioko omen du eta esne ugari den garaiari eman gabe utzi eta kito.

Ez dakit Bartzelona aldean asmatutako BST hormona hau Europa aldean baimenduko dutenik, baina hori horrela gertatuko baltitz, gure inguruko baserri txikiaren egin du, zeren azken batean, orain bitartean doidioa mantentzen baldin baziren, hormona dela medio granja handien abaintaila handiagoa izango da, eta gisa hontan familiar-



teko esplotazioak geruta zailagoa izango dute bizirik irauten.

Maiz aski, edozein aurrerapen oso ondo etortzen da eta gure lurraldeetako base-rirentzako edeki etorri da abel gormen arraza mailan egin den hobekuntza. Izan ere, asko hobetu dira sasoi batean zeuden nahasturiko behi kaskarrak, gaurok egunean nahiz Europa mailan hala Euskal Herrian nahiko esne eta okel dugula uste dut, eta horrexagatik ez gaudela inongo hormonaren beharretan.

J. Bereau

IDOIA OTEGI, BERRIRO ALEMANIARA

Apirilaren 15ean akordeoi kontzertu entzungarria izan genuen Itxas Etxean arratsaldeko 7,30etan. Jende asko bildu zen akordeoiariak entzutea eta bete-betean zegoen aretoa.

Hiru ziren soinu-joleak: Idolia Otegi Aranburu 12 urteko hondarribiarra, Iñaki Alberdi Alzaga, 15 urteko iundarra, eta Iraitz Manteola del Puerto, 12 urteko iundarra. Iru-rak Ekialdeko Alemaniara doaz maiatzeko klingenthal-go Nazioarteko Lehiaketan parte hartzera, bakoitza dagokion adin kategorian. Hirurak Karlos Iturralderen eskolan ari dira prestatzen, eta ez txantxetan, ahal dutenean egunean 8 eta 10 ordu ere sartzen dituztela.

Kontzertua Hondarribiko Udalak antolatu zuen. Karlos Iturraldek kaset txiki batean jaso zuen emanaldia eta bere ustez axola handiagoa zuen jendaurreko grabazio hark familiak jasoko zuen zubentzioak baino. Hari eskerrak hutsegiteak eta okerrak garaiz zuzentzeko aukera izango bait zuten; ez bait da berdina eskolan edo jendearen aurrean aritzea.

Idolia Otegi Semisarga auzoan bizi da. Miserogel baserrian O.H.O.-ko 7. Kurtoa egiten ari da Jaizubiako Txingudi ikastolan 8 urteetan soifeo ikasteari ekin zion Kristina Zeberio irakaslearekin eta 12 urtez bukatu. Akordeoia ikasten 9 urtez hasi zen Karlos Iturralderen eskolan. Urte horiek aski izan ditu musika trebetasun aparta erakusteko. Irakasleek eta ingurukoek, noski, ezagu-tzen zuten Idoliaren balioa baina gainera-koentzat ere ez da guztiz berria gertatu.



Idolia Otegi

igaz ere Klingenthal-go Nazioarteko Lehiaketan zortzi lagunekin finalera igaro eta gero laugarren geratu bait zen, irabazi zuen amerikanoagandik oso oso puntu gutxikara. Aurtengo desafioa zailagoa du, 12 urte dituelarik hurrengo kategorian sartzen bait da (12, 13 eta 14 urtekoen artean) gaizteetakoak izaki.

Kontzertuko interprete nagusia Idolia bera izan zen, bi aldiz aritu zelarik, emanaldiaren erdian eta bukaeran. Zailtasun handiko obrak ziren denak, klasikoak eta modernoak, ederi interpretatuak denak, sinestezinako maiutasunaz, joleen urteak



Karlos Iturralde

gogoan hartuta batez ere. Konturatu gabe bukatu joan zitzaizun saioa eta pozik txalotu genituen hiru lagunak.

Maiatzaren 10ean abiatuko dira eta lehiaketak 12tik 19ra iraungo du. Iturraldez dionez Klingenthal-go lehiaketa hau akordeolarien meka da, bere mailako forgarik gogorrena munduan. Urtero joaten saiatzen da hara joaten eta Karlosen ustez hura eskusinuaren unibertsitatea da, bertan eza-gutzen bait dira munduko azken berrikun-tzat eta joerak.

Zorionak eta suerte on!

DEMOGRAFIA

JAIOTZAK

MARTXOA

- 6an: NEREA Gil Martin
Gurasoak: Jose Antonio eta Catalina
- 17an: AINHOA Ramiro Castañares
Gurasoak: Jose Luis eta Ana Isabel
- 21ean: LARRAITZ Etxaburu Kerejeta
Gurasoak: Mamerto eta Miren Maitane
- 25ean: INIGO Arzak Sagartzazu
Gurasoak: Juan Luis eta M.^a Asunción
- 25ean: ANDREA Sagartzazu Alvaro
Gurasoak: Ignacio eta M.^a Angeles
- 29an: MAIDER Bermejo Ariztizabal
Gurasoak: Juan Jose eta Baleriana
- APIRILA
- 10ean: JULEN Goikoetxea Goikoetxea
Gurasoak: Francisco eta M.^a Angeles
- 15ean: MIREN JOSEBE Balerdi Toledo
Gurasoak: Alfonso eta M.^a Jose
- 18an: MAIALEN Arbelaz Emazabal
Gurasoak: Jesus Mari eta Nicolasa

EZKONTZAK

OTSAILA

- 25ean: Jose Luis Iriazabal Oronoz, Hondarribikoa eta Miren Edurne Zuzuarregi Gaztelumendi, Hondarribikoa.

MARTXOA

- 17an: Alfonso Ageda Ardaiz, Hondarribikoa eta Ana Isabel Osés Benguria, Iruñea.

APIRILA

- 1ean: Luis Mariano Sagartzazu Juaniz, Hondarribikoa eta Pilar Iñdoi Olaskoaga, Hondarribikoa.
- 4ean: Antonio Vazquez Espiño, Hondarribikoa eta Ramona Virto Olazabal, Hondarribikoa.
- 8an: Claudio Garcia Aviles, Pasaikoa eta M.^a del Coro Garmendia Lekuona, Hondarribikoa.
- 15ean: Emilio Camello Jaramillo, Iruñea eta M.^a Carmen Lekuona Basterra, Hondarribikoa.
- 15ean: Alfonso Perez Lopez, Iruñea eta M.^a Cristina Beraza Sabino, Hondarribikoa.

HERIOTZAK

MARTXOA

- 8an: Angel Nuñez Santiago Kalekoa

- 9an: Valentin Izaguirre Genua, 85 urtekoa Harresilanda Kalea (Villa Carlos V)

- 9an: Jose Ibañez Berridi, 72 urtekoa Amute Auzoa

- 15ean: Rufino Parro Jorge

- 17an: Simona Etxarte Etxalde, 90 urtekoa Lonja Kalea

- 18an: Antonia Orradre Lujambio, 90 urtekoa San Gabriel Egoitza.

- 21ean: Demetrio Olaskoaga Treku, 62 urtekoa San Pedro Kalea

- 24ean: Julia Perez Perez Kale Nagusia.

APIRILA

- 1ean: Ruperta Indo Alkorta, 89 urtekoa Arantzale Auzoa

- 15ean: Eusebia Iriazabal Berrotaran, 82 urtekoa Santiago Kalea

- 17an: Luisa Bernas Gonzalez Gabarrari Kalea

- 19an: Geronimo Olazabal Olazabal San Pedro Kalea

